



IRABAZI-ITURRIAK

Tirapan diru-sarrera mota ezberdinak izango ditugu.

Alde batetik, gure bezeroetatik jasoko ditugun diru-sarrerataz gain, udaletxeak hainbat diru-laguntza emango digu, hala nola, horrelako proiektuak aurre egin ahal izateko helburua baitu. Udaletxeak guztira 6000€-ko prezio finkoa eskainiko digu, horrelako proiektuek aurre egin ahal izateko.

Gure proiektua, herritar guztiei zuzenduta dagoelarik, gehienbat adinezko pertsonentzat edo mobilitate arazoak dituztenentzat dago zuzenduta. Edozeinek erosi ahal arren, gure ustez nahiko arrakasta handia izango du horrelako pertsonengan, produktu honen beharra dutelako, beraz, esan genezake irabazi-iturri gehienak beraiengandik etorriko direla.

Kontutan hartuz gure produktua adineko pertsonengan edota mugikortasun arazoak dituztenei zuzenduta dagoela, prest egongo ginateke merkatu-segmentuaren eta bere ezaugarri berezien arabera prezioa adosten, horrelako deskontu bat eginaz, ekonomikoki gaizki dauden eta arazo hauek azaleraztzen dituztenei. Horrela agian bezero gehiago lortu ahalko ditugu eta gure bezeroei erosteko ahalmen handiagoa emango diegu.

Azkenik guk eskainitako produktua ordainketa bakarraren bidezko sarreratan oinarrituko dugu, hala nola, gure produktuak kostu hain handia ez izan arren, behin behineko erosketatan oinarrituko dugu.

Gure enpresa hazteko, eta ondorioz diru sarrera gehiago edukitzeko, beste enpresa batzuekin elkartzea pentsatu dugu, kanpo hazkuntzarako. Adibidez, supermerkatu batekin elkartzea, Eroskirekin, eta bezeroek bertan diru kopuru jakin bat gastatuta, sorteo baten sartuko lirateke, gure produktu bat irabazi ahal izateko.

Diru sarrerak 2 ataletan banatu ditugu. Alde batetik negozioaz hasten garenetik 6 hilabeteetan zehar (1. taula), eta bestalde, lehen 6 hilabeteak pasa osteko hilabeteko diru sarrerak (2. taula). Hona hemen aurreikuspenak:

DIRU SARRERAK	
	Diru sarrerak 6 hilabeteetan (€)
Udaletxearen diru laguntzak alokairuarentzat	2.000€
Bezeroei saldutakoa guztira	93.000€
DIRU SARRERAK GUZTIRA	95.000€

Diru sarrerak lehenengo 6 hilabeteetan:

Kontuan hartuta 95000€ irabaziko ditugula guztira, kostuak kontuan hartzen baditugu, 72320€ izango direla, gure negozioko etekina 22680€koa izango da lehen 6 hilabete guztietan. Honek esan nahi du, hilero 3780€ko etekinak edukiko ditugula hilabete hauetan zehar.

	Diru sarrerak hilabete batean(€)
Bezeroei saldutakoa guztira	27.900€
DIRU SARRERAK GUZTIRA	27.000€

Diru sarrerak lehen 6 hilabeteak ondoren:

Egunero 60€-tan 15 erosketa-orga tolesgarri salduko dira, eta diru sarrerak 27000€koak izango dira. Kostuak kontuan hartuta, hilabete bakoitzean 3300€-ko etekinak izango ditugu 6 hilabeteak pasa ostean.